



AKTA

ORGANOA: Aparteko Osoko bilkura.
DEIALDIA: Lehenengoa
EGUNA: 2019/06/15
ORDUA: 19:00 – 19:15
LEKUA: Pleno aretoan.

BERTARATUAK:

Alberto Garro Uribe (EH Bildu)
Maria Jose Irusta Argoitia (EH Bildu)
Andoni Lariz Budstindui (EH Bildu)
Alicia Rementeria Barruetabeña (EH Bildu)
Ricardo Sanchez Duralde (EH Bildu)
Iratxe Pikaza Añibarro (EAJ-PNV)
Ion Ander Barruetabeña Gerrikabeitia (EAJ-PNV)

EZIN ETORRIA ADIERAZI DUTE:

IDAZKARI – KONTUHARTZAILEA:

M^a Concepcion Mallea Madariaga.

GAI ZERRENDA:

1. Adineko mahaia osatu.
2. Udala eratu.
3. Alkatea aukeratu.



Udaletxeko Batzar Aretoan, 2019ko ekainaren 15ean, eguerdiko hamabiak direla, goian adierazitako zinegotzi hautetsiak bildu dira udala eratzeko asmoz, ekainaren 19ko 5/1985 Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 195 artikuluan ezarritakoa betez. Aurretik euron kredentzialak aurkeztu, nortasuna egiaztatu eta bateraezintasun arrazoen, jardueren eta ondare ondasunen aitortpenak aurkeztu dituzte.

1. ADINEKO MAHAIA OSATU.

Idazkariak, Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 195 eta 196 artikulua irakurri ditu eta, halaber, aditzera eman du udalbatza berriaren esku geratzen direla udalak bai dirutan zein banketxetan duen diruaren egiaztagiriak eta arkeoko aktak, udalbatzaren ondasun-zerrendarekin batera.

Ekainaren 19ko 5/1985 Hauteskunde Araubide Orokorraren Lege Organikoaren 195 artikulua dioenari jarraiturik, bertaratutako hautetsi nagusienak eta gazteenak, udal idazkariarekin batera, ondorengo Adineko Mahaia osatu dute:


- Maria Jose Irusta Argoitia
- Iratxe Pikaza Añibarro
- M^a Concepción Mallea Madariaga (idazkaria)

Maria Jose Irusta Argoitia izan da mahaiburua, nagusiena izateagatik.

2. UDALA ERATU.

Zinegotzi berrien kredentzialak eta Gernika-Lumoko Hauteskunde Batzordeak udalera bidalitako hautetsien aldarrikatze-akta bat datozela egiaztatu da.

Zinegotzi hautetsi guztiak bertaratu direla egiaztatuta, hortaz, legeak eskatzen duen gehiengo osoa betetzen dela, eta zinegotzi karguaren jabetza hartzeko legezko tramiteak bete ondoren, Mahaia eratutzat eman du Korporazio berria.



3. ALKATEA AUKERATU.

Jarraian alkatea aukeratzeari ekin zaio, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196 artikuluari jarraiturik.

EAJ/PNVko zerrendaburua den Iratxe Pikaza Añibarro andreak adierazi du ez duela bere hautagaitza aurkezten; hortaz, EH Bilduko zerrendaburua den Alberto Garro Uribe geratzen da hautagaitza bakarra udaleko alkatetzarako.

Alkatea aukeratzeko bozketa eskua jasota egin da, ondorengo emaitzarekin: bost (5) boto Alberto Garro Uribe jaunaren alde eta bi (2) kontra.

Ziortza-Bolibarko Udalak 7 zinegotzi ditu eta alkatea zuzenean izendatzeko behar den legezko gehiengo osoa izateko lau (4) behar dira; beraz, bost (5) boto jaso dituenek gero, Alberto Garro Uribe (EH Bildu) zerrendaburua izendatu dute alkate.

Jarraian Maria Jose Irusta Argoitiak, Adineko Mahaiko zinegotzi nagusia, alkate-makila eman dio Alberto Garro Uriberi.

Alberto Garro Uribek makila hartu eta hitz batzuk eskaini dizkie zinegotziei eta bertaratu diren herritar guztiei. Lehendabizi, galdetu du baten batek zerbait esan nahi duen. Inork ez du hitza hartu. Ezker ona adierazi die pasadan hauteskundeetan EH Bildu aukeratu zuten herritarrei, baita zinegotzi ohiei, udal langileei eta etxekoei ere. Gaineratu du borondatez hartzen duela kargua, nahita, ez behartuta, proiektu baten sinesten duelako, Euskal Herri aske eta sozial baten proiektuan. Ziortza-Bolibar herri txikia da baina pausua da. Politiko denak *ez gara igualak* esan du, *biluzik sartu eta irten gara*. Funtzionamendua irekia izan dutela orain arte azpimarratu du, bilera zabalak egin dituztela eta horrela jarraituko dutela ez baitute ikusten beste erarik funtzionatzeko.

Tratatzeko beste gairik ez dago eta alkateak batzarra amaitutzat eman du.

Alkatea,
Alberto Garro Uribe



Idazkaria,
M^a Concepción Mallea Madariaga